

**“Euskararen Historia Txikia Donostian 1800-1998”**

**Aurkezpena (1998-11-23)**

Poz handia ematen digu Koldo Izagirreraren liburu berri hau “Euskararen Historia Txikia Donostian 1800-1998” Casaresen aurkeztu ahal izateak. Alde batetik, liburuaren gaia eta egilea bera oso interesgarriak iruditzen zaizkigulako, eta bestetik pozgarria ezezik guretzat eskertzekoa da ere aurkezpen hau Altzan eta gure Mintegiaren baitan egin nahi izana.

Altzaren historia pixka bat ezagutzea nahitanahiezkua da aurkezpena Casaresen egiteko arrazoiak ulertzeko. Hasteko, jakin behar da Gerra Zibilaren amaieran, agintari frankisten erabakiaren ondorioz, Altza Donostiara anexionatu zutela eta herria izateari utzi ziola. Erabaki horren ondorioak, onak eta txarrak, hemen daude, batzuk begi bistan eta beste batzuk izkutuan. Datu hau erabakiorra izan da Altzaren gaur egungo historian eta pisu handia izan du gure elkartearen sorreran. Izan ere, Altzako Historia Mintegia orain dela hamabi urte sortu zen Casares Kultur Etxearen gerizpean, bi asmo nagusi zituela: altzatarren memoria historikoa berreskuratzea, eta Altzari buruzko ikerketak eta ezaguera bultzatzea.

Ildo horretatik, hamabi urte hauetan Fototeka, Tokiko Bilduma, aste kulturalak, argitalpenak (Altza, Hautsa Kenduz liburu-aldizkaria, Estibaus buletinaren, Artiga bilduma) eta beste hainbat eta hainbat jarduera antolatu dugu. Eta ahalegin horretan jarraitzen dugu. (Zehaztasun gehiago nahi izanez gero bilatu honekin batera doan orrian)

Beharrezkoa da esatea ere, egin dugun bide honetan euskara izan dugula lagun. Altza, estatistikaren zenbaki hotzek diotenez, Donostiako auzorik erdaldunenetakoa omen da. Honi heltzen badiogu, leku okerragorik ezin zuten aukeratu “Euskararen Historia Txikia Donostian” aurkezteko. Oker dabilta, ordea, honela pentsatzen dutenak. Zenbakiak ez dute dena esplikatzen. Txirrita Altzan bizi izan zen garaian euskaldun kopurua askoz handiagoa bazen ere euskararen erabilera maldan behera zihoan nabarmenki. Gaur egun, berriz, gure eguneroko bizitzan datuak antzematen ditugu malda-beherako joera hori aldatu dela esateko. Guri dagokigunez, euskara komunikazio eta lan tresna bizia daukagu, gaztelaniarekin batera. Eta gure lanean euskara bizia izan dadin beharrezkoa izan dugu Altzako euskaldunen parte hartzea, laguntza eta lana.

Euskaldun horietako bat Koldo izan da. Hasi ginenean, fototeka osatzeko hainbat argazki eta filme zahar eskuratzen lagundu zigen. Eta denboran hain atzera joan gabe, iaz argitaratu genuen “Altza, Hautsa Kenduz” liburuan azken alean Koldok “Paris ez besterik zu bezalakorik” izenburuko idazlana oparitu zigen. Bertan zioen maite zuela gaur egungo Altza.

Eta, izan ere, baditu motiboak Altza maitatzeko. Alde batetik Koldo mutiko altzatarra dugulako. Bere haurtzaroan “torrionas” eta “mantxurriano”en artean bereizturik zegoen Altzan jolastu baitzen. Bere etxea, Etxetxo, Arriya baserriaren ondoan zegoena dagoeneko ez da existitzen. Ezta garai bateko sagastiak eta errekek ere. Metarfosia gauzatu zen eta, berak esandako hitzetan, “errealitate zabal, aunitz eta zaila” bilakatu. Denborak eta esperientziak eskaini diote Koldori haurtzaroan asimilatu ezin izan zituen aldaketak asimilatzeko eta “zuhaitz mota askotako basoak” maitatzen dituela jabetzeko.

Hauek dira, besteak beste, “Euskararen Historia Txikia Donostian 1800-1998” liburuaren aurkezpena Altzan egin izanaren arrazoiak. Bukatzeko ekarri nahi dugu hona liburuak jasotako Marcelino Soroaren aipamen bat. Soroak zioen kanpaiek mihia dutenez hizkera bat ere izan behar dutela eta, hain zuzen ere, Altzako San Martzial elizaren kanpaiak ari zela “izan ta izango” “izan ta izango” erantzuten omen zietela San Pedroko kanpaien “beti mixeri” “beti mixeri” hotsei. Koldoren eta beste askoren euskarazko lanak ikusita, berriro dantzan jarri beharko ditugu San Martzialen kanpaiak, oraingoan, euskara Donostian “izan ta izango” “izan ta izango” aldarrikatzeko. Zorionak Koldo.